

AKTA



Bilera eguna: 2011-12-01

Bilera tokia: Kultur etxea

Bertaratuak: Elixabet Zuriarrain, Hector Gonzalez, Santos Carretero, Imanol Manterola, , Iñigo Gaiton, Garbiñe Manterola, Joanna Domingo, Olatz Olariaga eta Marijo Martinez

Hasiera ordua: 19:00

Bukaera ordua: 20:30

Gai ordena

1. Agenda 21aren diagnosis eta ekintza plana lantzea (2004koa da, oriora.com webgunean ingurumenari dagokion atalean dokumentu guztiak ikus daitezke) TBaren helburu orokorrak finkatzen joateko oinarri gisa.
2. Etxeko lanen taulatxoan agertzen dena. Lehenagotik landu gabeak, eta proposamen berriak.
3. Bestelakoak

Bileraren garapena

1. Agenda 21a. Marijo Martinez.Herrio natur taldea

Sarrera modura Agenda 21a zer den esplikatu eta 2005ean Orion egindako diagnostikoa eta ekintza planen dokumentuak azaldu ditu, estrukturari dagokionean sakonduz, ez edukiari dagokionean.TBko 2.bileran esanda bezala dokumentu hauek oinarriztat hartu eta puntuz puntuko azterketa egitea da asmoa, izan ere ingurumenaren atalak trataera monografikoa badu ere diagnostikoa banatzeko egindako atal guztietan ingurumenari buruzko aipamenak egiten baitira. Honetarako *www.oriora.com* webgunean zintzilikatutako dokumentuen orijinalak (.doc formatuan) eskatuko dira, eta banan banan landu, ekarpenak bertan eginez eta ekintza plana berridatziz. Dokumentu hauek lantzeko epea 2012ko ekainean jarri da. TBko 4.bilerarako (2012ko urtarrila) SOZIOEKONOMIA eta INGURUMEN NATURALA atalak lantzeko gelditu gara. Proiektoreaz lagunduta egingo dira ekaina bitarteko bilerak.

2. Ekintza konkretuak

2.1. Hondartza. Garbiñe. Herrio natur taldea

Herriok eta OSTk hondartzaren egoeraren inguruko azterketa egiteko eskaera egin zion udalari duela urte pare bat, hondartzaren bilakaera ikusita (hondarraren kalitatea txarragoa, korronteen bilakaera, bainua hartzeko zailtasunak hondartzaren

egitura aldaketagatik...). Hau guztiagatik azterketa zientifiko egokia egitea eta soluziobideak definitzea zen eskatzen zena.

2011kako martxoan EHUko adituekin (Manu Monge, Alejandro Cearreta) kontaktatu zen eta hauen bitartez Southampton-go unibertsitateko adituekin (Carl Amos irakaslea) harremanetan jarri ziren bi taldeak. Azaroan jarri dira berriz harremanetan eta iada badira proposamenak. Finantziazioa erabaki beharko da.

Bestetik EHUko Topografiako Ingeniaritza eskolako lantalde batek (Edeso irakaslea, Nerea Argote eta Jon??? ikasleak) Orioko Antilla hondartzaren azterketa topografikoa burutzen dihardute egun. 2012ko ekainean izango dituzte datu definitiboak, orain 30 urteko azterketa topografikoarekin alderatzea izango dute helburu eta ondorioak azalduko dituzte. Orioko udalarekin elkarlanean egingo dute lan hau, udalak ikerketaren dibulgaziorako gastuak bere gain hartuko dituelarik.

Bi unibertsitatek lan hau egitea begi onez hartu du TBak, erakunde hauen gardentasunagatik, azterketa zientifikoa lehenetsiko dutelakoan.

Hondarzalearen aktibitatea ere aztertu beharko dela esan da, hondartzan izan dezaken eragina ezagutzeko. Aiako udalak izango du honen berri bere lurretan baitago Orioko itsasadarra dragatzen duen enpresa hau. Orioko udalari ere galdetzea adostu da. Honi, AZTI-k kanpoko espigoiaren proiektuan egindako ingurumen eraginen

3. Bestelakoak eta etxekolanak.

- Motondoko proiektua zertan den galdetu da. Gaurko egoera zertan den azaldu da. Aranzadiren azterketa zientifikoa bukatua, abenduaren 29an aurkezpena egingo da. Exekuzio proiektua idazten hasi dira.
- Herriko lurretan egindako ingurumen azterketen aipamena egin da, baita lurren inbentarioarena ere. Dokumentua email bidez partaide guztiei bidaltzea adostu da. Datorren bilerarako deialdian bidaliko da dokumentu hau.
- Ehiza: Orioko ehiza tokien kudeaketa zein elkartek daraman jakin nahi dela azaldu zaio Hector-ri Itsas-Enara Gipuzkoako ornitologia elkarteko kide baita. Datu hau eskuratutakoan TBra ekartzeko asmoa agertu du. Asmoa ehiza postua dutenei garbiketa postuen jabeen ardura dela gogoraraztea da, ikusita Orioko inguruan dauden postuak zein zikinak dauden. Postuak herritik hain gertu egotea baimendua dagoen ere ikusi nahi da.

TBaren 4. bilerarako etxekolanak

Zer	Nork
Agenda 21a: SOZIOEKONOMIA, INGURUMENA atalen azterketa, ekarpenak	TB
Arkuperekin biltzeko proposamena	Orioko Zero Zabor taldeak
Edalontzien dokumentua aztertu	Denek
Planeamenduaren laburpena	Beñat
Orioko ehiza postuen kudeaketa daraman elkarteak	Hector
Herri lurren azterketak, inbentarioa	Beñat (emailez bidali)

Besterik gabe bilera bukatu dugu hurrengo bilerarako deialdia egin da, urtarrilaren 12rako (19tan k.etxen)